Foro Soziala 2013ko martxoan sortu zen, Lokarriren eta Bake Bidearen eskutik, «blokeo anitzen» garaiaren testuinguruan, gizarte zibiletik indarkeria-zikloaren ondorioen konponbidea bultzatzeko. Horretarako, 12 gomendio aurkeztu zituen.

Foro Sozial Iraunkorra 2016ko ekainean sortu zen 12 gomendio horiek lantzeko. Bere ibilbidean zehar, lau Foro Sozial sektorial antolatu ditu, gomendioak eguneratuz eta alde anitzeko espazioak sortuz. Espazio horietan, pixkanaka, konponbiderako markoen oinarriak adostu dira, besteak beste, armagabetze zibila eta ETAren desegitean, biktima guztiek egia, justizia eta erreparaziorako duten eskubidean, presoen auziaren konponbidean eta memoria kritiko inklusiboa eraikitzean, gertatutakoa ahaztu gabe eta pairatu dugunaz ikasita, bizikidetza demokratikoa sendotzeko bidean aurrera egiten lagunduko digun memoria bat.

Foro Sozial Iraunkorra osatzen duten 17 erakunde eta pertsonek, gaur, 2023ko urtarrilaren 21ean, adierazpen hau publiko egin nahi dute:

## Adierazpena

# «Bide kolektibo bat: Harrotasunerako arrazoiak»

1. Asko egin da aurrera azken 10 urteotan. Aurrerapen horiek guztiak egin ahal izan dira heldutasun nahikoa egon delako konfiantzazko espazioak eraikitzeko. Espazio horiek adostasunak sortu dituzte eta horiei esker aurrerapauso garrantzitsuak eman ahal izan dira eremu guztietan.

2. Bide hau kolektiboa izan delako iritsi gara honaino. Era progresiboan, eragile instituzional, politiko, sindikal eta sozial askok erabaki dute beren erosotasun-eremuetatik ateratzea bide hau elkarrekin egiteko. Horretarako, batzen gaituenari lehentasuna eman diote banatzen gaituenaren gainetik, hau da, gizarte-kohesioa eta bizikidetza demokratikoa lehenetsi dituzte. Denok ditugu, beraz, harro egoteko moduko arrazoiak.

3. Bide horretan, ekarpenak egin ditugu elkarrizketaren kultura berri bat eraikitzeko. Barrura begira, eta kultura horren adierazle nagusi bezala, Foro Sozial Iraunkorraren aniztasuna dago; agian aniztasun maila hori biltzea lortu duen espazio bakarra. Eta kanpora begira, lan-harremanen sare zabala eraiki dugu, eta eragile berriak aktibatu ditugu, hasieran kontu horiek urrunetik behatzen zituztenak.

4. Gure iritziz, I. Foro Sozialean aurkeztutako hamabi gomendioetatik, hamaika bete dira edo oso aurreratuta daude eta konponbiderako markoak definituta dituzte. Besteetan, markoen oinarriak ezarrita daude. Foro Sozial Iraunkorrak harrotasunez esan dezake helburu horietara iristeko zegokion lana egin duela.

5. Alde horretatik, eta sortu ginen xedeari dagokionez, Foro Sozial Iraunkorrak gaur jakinarazi nahi du martxoan, I. Foro Sozialaren X. urteurrenarekin bat etorriz, amaitutzat emango duela bere lan-etapa, VI. Foro Soziala antolatuz. Aho batez hartu dugu gure lan-etapa amaitzeko erabakia, balantze zorrotz batean oinarrituta, belaunaldi berriei gizarte hobea uzteko gure ekarpena egin izanaz harro.

6. Foro Sozial Iraunkorraren ustez, konponbiderako prozesua ez da burutu. Hilabete hauetan oztopo berriak agertu dira bidean, fase berri baten erronkak identifikatzen dituztenak, aurrekoa bezalakoa izango ez dena. Indarkeria-zikloaren ondorioen konponbiderako prozesuaren fase berriak erronka berriei aurre egin beharko die eta horretarako tresna berriak sortu beharko ditu.

Trantsizioan dagoen gizarte bat gara, eta, gertatutakoa zergatik gertatu zen ados jartzen ez bagara ere, etorkizun komunaren oinarriak finkatu behar ditugu; gure gizarteari bizikidetza demokratikoan oinarritutako konponbiderako marko integral bat emango dion etorkizuna.

Espero dugu helburu handi horretan lagundu izana.

Durangon, 2023ko urtarrilaren 21ean

El Foro Social nace en marzo de 2013 de la mano de Lokarri y Bake Bidea, en un contexto de «bloqueos múltiples», con el fin de impulsar desde la sociedad civil una vía para resolver las consecuencias del ciclo de violencias. Para ello, establece 12 recomendaciones.

En junio de 2016 nace el Foro Social Permanente, que recoge esa misión y, a través de la organización de cuatro Foros Sociales sectoriales, va actualizando esas recomendaciones, generando espacios multilaterales que han ido, progresivamente, consensuando las bases de los diferentes marcos de resolución en cuestiones como el desarme civil y la disolución de ETA; el derecho de todas las victimas a la verdad, la justicia y la reparación; la resolución de la cuestión de las personas presas y la construcción de una memoria crítica inclusiva que, aprendiendo de lo que hemos padecido y sin olvidar nada de lo ocurrido, nos permita seguir avanzando en la consolidación de la convivencia democrática.

Las 17 entidades y las personas que a título individual conforman el Foro Social Permanente queremos hacer pública, hoy, 21 de enero de 2023, la siguiente

## Declaración

# «Un camino colectivo: razones para el orgullo»

1. Es mucho lo que se ha avanzado en estos 10 años. Estos avances han sido posibles gracias a la perseverancia de la sociedad civil y porque ha habido suficiente madurez para construir espacios de confianza que han generado consensos que, a su vez, han permitido avances significativos en todos los ámbitos.

2. Este trayecto se ha podido realizar porque ha sido colectivo. Son numerosos los actores institucionales, políticos, sindicales y sociales que han decidido progresivamente salir de sus zonas de confort para hacer este camino juntos, priorizando lo que les une a lo que les separa: la búsqueda de la cohesión social y la convivencia democrática. Todas y todos tenemos razones para estar orgullosas y orgullosos.

3. En este camino, hemos aportado para construir una nueva cultura del diálogo. En lo interno, como mejor prueba de ello, la pluralidad del Foro Social Permanente. Tal vez el único espacio que reúne tal pluralidad de actores. En lo externo, tejiendo una extensa red de relaciones de trabajo y activando nuevos actores que observaban estas cuestiones desde la distancia.

4. Entendemos que, de las doce recomendaciones del I. Foro Social, once se han cumplido o están maduras para hacerlo. Para aquellas consecuencias del ciclo de violencias que están "en vías", los marcos de resolución aparecen ya definidos. En las otras, las bases están sentadas. El Foro Social Permanente entiende con satisfacción haber aportado lo que le correspondía en este objetivo.

5. En este sentido, y refiriéndonos a la misión para la que nacimos, el Foro Social Permanente desea anunciar hoy que, el próximo mes de marzo y coincidiendo con el X. aniversario del I. Foro Social, dará por finalizada su etapa de trabajo, organizando un VI. y último Foro Social. Hemos tomado esta decisión por unanimidad, basándola en un balance riguroso y orgullosas y orgullosos de haber aportado nuestro granito de arena para dejar una sociedad mejor a las nuevas generaciones.

6. El Foro Social Permanente entiende que el proceso de resolución no está culminado. En estos meses han aparecido obstáculos nuevos en el camino, que identifican los retos de una nueva fase que no será como la anterior. Una nueva fase del proceso de resolución de las consecuencias del ciclo de violencias que deberá afrontar nuevos retos y dotarse para ello de nuevos instrumentos.

Somos una sociedad en transición y, aunque no nos vamos a poner de acuerdo en el por qué ocurrió, sí debemos sentar las bases del futuro común al que queremos ir y que permita dotar a nuestra sociedad de un marco de resolución integral basado en una convivencia democrática.

Esperamos, deseamos, haber podido contribuir a este fin mayor.

En Durango, a 21 de enero de 2023